

## BESTELAKO XEDAPENAK

### LAN ETA ENPLEGU SAILA

## 383

*EBAZPENA, 2022ko urtarrilaren 12koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez ebazpen honen huts-zuzenketa egiten baita: Ebazpena, 2021eko abenduaren 21ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko landa- eta hiri-hiriguneetako emakumeei laguntzeko programa garatzeko laguntzen deialdia, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatzeko Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan.*

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuak 18.2.c) artikuluan xedatzen duenez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak maila bereko xedapen batez zuzenduko dira, baldin eta nabarmenak ez badira eta, horiek zuzentzearen ondorioz, agiriaren edukia edo esanahia benetan edo itxuraz aldatzen bada.

Horrelako hutsak atzeman dira honako ebazpen honetan: Ebazpena, 2021eko abenduaren 21ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko landa- eta hiri-hiriguneetako emakumeei laguntzeko programa garatzeko laguntzen deialdia, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatzeko Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan. Ebazpena 2021eko abenduaren 31ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen, 262. zenbakian. Hori dela-eta, dago-kion zuzenketa egiten da hemen:

2021/6483 (28/7) orrialdean, 3. artikularen 1.c atalean, honako hau dio:

«c) Lanerako prestakuntza eta lanbide-kualifikazioa berriz lortzeko jarduerak, batez ere, artikuluan honen 7. apartatuan aipatutako arlo eta lanbide-jarduerei lotutako edukiei buruzkoak, lan batean aritzeko egokiak eta nahikoak diren ezagutza teknikoak eta trebetasunak lortzea ahalbidetzen dutenak, ahal bada, aipatu lan arloetan, edo bestela, ezagutza, prozedurak, teknologiak edo jorak eguneratzea edo berriz lortzea, bereziki, adierazitako arloetan. Parte-hartzaile guztiek ondoko prestakuntza-espezialitateetako bat gutxienez ikasi beharko dute:

- FCO108: ekintzailetzarako oinarrizko kompetentzia digitalen hastapenak.
- FCO106: oinarrizko kompetentzia digitalen hastapenak.
- FCO107: enplegurako oinarrizko kompetentzia digitalak.»

Baina hau esan behar du:

«c) Lanerako prestakuntza eta lanbide-kualifikazioa berriz lortzeko jarduerak, batez ere, artikuluan honen 7. apartatuan aipatutako arlo eta lanbide-jarduerei lotutako edukiei buruzkoak, lan batean aritzeko egokiak eta nahikoak diren ezagutza teknikoak eta trebetasunak lortzea ahalbidetzen dutenak, ahal bada, aipatu lan arloetan, edo bestela, ezagutza, prozedurak, teknologiak edo jorak eguneratzea edo berriz lortzea, bereziki, adierazitako arloetan. Parte-hartzaile guztiek ondoko prestakuntza-espezialitateetako bat gutxienez ikasi beharko dute:

- FCOI08: ekintzailetzarako oinarrizko kompetentzia digitalen hastapenak.
- FCOI06: oinarrizko kompetentzia digitalen hastapenak.

2022ko urtarrilaren 25a, asteartea

– FCOI07: enplegurako oinarrizko kompetentzia digitalak.»

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urtarrilaren 12a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,  
MARÍA GLORIA MÚGICA CONDE.